

## Mutriku.

### Hiri baten Historiarako oharra

Paulo Gorosabelek zioenez, Mutrikuk 1543an ezagutu zuen erreketan galdu zituen nonbait hiriaren artxibategiko ageri zaharrak. Gertaera tamalgarri horregatik ez omen dira ezagutzen bertako ordenantza zaharrak, 1727. urtean egin ziren berriak baizik, hauek gero, 1759an, zenbait aldaketa izan zituzten.

Hala ere, Gaztelako errege Alfonso VIII.ak eman zion hiri-bildu sorrerako izendapen ageria ezaguna da, 1237an latinez idatzia; baina agiri horren edukia Nafarroako Santxo Jakitunak 1180an Donostiari eman zion "Carta-puebla" foruan gauzatzen da. Baina bada 1256an bere eremua mugatuz eman zitzaion pribilegioa, zenbait urte geroago birretzia. Zein bata eta zein bestea, Gorosabelen Gipuzkoako *Diccionario Histórico-Geográfico* (Tolosa, 1862) liburuaren eraskinean jasoak datoz. Horrez gainera, Gaztelako errege Enrike II.ak 1374an zerga gutitzez emandako eskubideak aipatzen ditu.

Geroztik, zenbait erregelak ageri horiek berriz onespentzeaz aparte, hutsune nabarmena aurkituko dugu Mutrikuren historian, hamaseigarren mende azkenaldira arte. Hala ikus daitake Agustin Zubikarai adiskideak hiri hontaz egin zuen monografian ere. Beraz, ikus Agustin Zubicaray, *Mutrico. Apuntes, extractos y divagaciones* (San Sebastián, 1969). Hor aipatzen ditu historia zehar izan dituen auzoak ere: Artzain-erreka, Astigarribia, Galdona, Ibiri, Laranja, Magdalena (Maala), Mijoa, Mizkia, Olabarrieta, Olatz eta Saratzu.

Jakingarriak dira ondoko ohar hauek: Larangako Bustiñagan egin ziren Deba eta Mutrikuren arteko bakeak 1655. urtean, Karmelo Etxegarairen *Investigaciones históricas referentes a Guipuzcoa* (1893) liburuko 247. orrialdean adierazten duenez. Aldiz, jatorriz Mijoa auzoko Doistukoak ziren hamazortzigarren mendean Eibarko armaginen artean hain ospetsuak ziren Doiztua deitura-

koak ikus besterik ez dugu James D. Lavin-en *A History of Spanish firearms* (London, 1965) liburua-ren 259. orrialdea edo Ramiro Larrañagaren *Síntesis histórica de la armería vasca* (Donostia, 1981) deritzanaren 210. orrialdea.

A. Zubikaraik aipatzen dituen mutrikuar seme ospetsuen artean bada bat oso aipagarria, Antonio Gaztañeta (1656-1728), bere liburua-ren 72. orrialdean irakurri dezakegunez, piloto eta itsasontzien arkitekturagintzan oso trebea zena. Hortaz, gaur egun zehatzako aztertze-ko aukera dugu, Gipuzkoako Diputazioak 1992an bitomo ederretan argitaratu zuen *Arte de Fabricar Reales* deritzan lanari esker. Hor datoz bere eskuizkribuak eta itsasontzigitzarako egin zituen marrazki zogarriak.

Hainbat urteko hutsune hori betetzeko, bi ageri aurkitu ditut Mutrikuko historiarako jaso beharrezkoak, eta ongi deritzot horien berri ematea.

Badirudi historiagileen artean oraindik ez dela hain erabilia Lope García de Salazarrek XV. mendean oinaz eta ganboar taldeei buruz idatzi zuen *Las Bienandanzas e fortunas* delako kronika, eta han dator aipatzen ditudan ageri bietako bat. Baina historiagintzan ari direnentzat, esan dezadan, Rodríguez Herrero-ko obra hori argitaratu zuenetik beharrezko iruditzen zaidala ber-

tan begiratzea. Egia esan, Mutrikuz, aipamen soil bat besterik ez du; behar bada bera ere ez hain garrantzitsua hiri honen historia-rako, baina bai garaiko gizarte giroa ezagutzeko. Orduan ere baziren maitemin kontuak, amaren semeak munduan diren artean izango direnak, eta hainbat latza-goak dirua bitarte dagoenen.

Martin Ruiz Aranzibiakoak Joan Gonzalez Arteagako hil zue-nekoa kontatzen du. Badirudi bere amorantetzat nahi zuela Joan Gautiniz Arteagakoaren emaztea, Martin Ruiz de Ganboaren arreba, senarra eta aitagina-rreba hil ondorean, hauen ondasunekin jabetuz Gautegiz-Arteagatik Ondarroara aldatu ziren han zituzten ondasunegatik eta Mutriku bizilekutzat hautatuz, 1460. urtean. Alargun hori, zahartzarora ezkondu zen Joan Gonzalez morroi gaztearekin, edo-zertarako gizona zenez, bere ondasunak gorde zitzaiz, eta biak Mutriku bizitzeko. Baina, *Fuero juzgo o libro de los jueces* zeritzon visigodo garaiko lege kodearen aurka zihoan gertakari hori. Martin Ruiz Aranzibiakoak bere esku hartu zuen epaitza, senide zuen Laborterekin baliatuz, honek pozoidun belarrez hiltzeko Joan Gonzalez Arteaga. (*Las Bienandanzas e fortunas*, XXII. liburua, 93. orrian datorrenaren arabera).

Beste berria, harri batek duen iragarkia da. Harri hau, izatez,

Laranga auzoko Aritzeta dorretxearen ateburu edo leihoburukoa da. Duela hogeita hamaika urte erre zen dorretxe hau eta birrerakitzean aldaketa andiak izan ziotuen. Lehengo ojiba itxuradun arkitekturaren orde zaharrarenik bere oinarriak, leiho bikote bat (beste bi berreraiketean gehituak dira), eta ate eta leiho bat hormaz estaliak. Hoiek ditu hamabosgarren mendekoak.

XV. mendeko dorretxe honetan sortu zen 1576. urtean Santa Katalina komentua. Bertako nagusi ziren Batxiller Joan Otxoa eta Berriatua eta bere emazte Katalina Plaza izan ziren Aritzeta dorre hau hortarako utzi zutenak; Komunitateen begirale zen Alkitzu jauna arduratu zen hortarako egokitze beharren obren zuzendari. Baina, ez zuen asko iraun. Trentoko Kontzilio ondorean, herrietatik aparte zeuden komentuentzat eragozpenak jartzen hasi ziren eta sortzaileen oinordeko ziren Idiakeztarrak, 1638an, aldatu zituzten monjak XV. mendearen azkenaldera eraikia zen Berriatua dorretxera (gaur Zulaingoa deritzanera), orain ezagutzen den komentu berria Bonoztitz zeritzan alorrean eraiki arte.

Aritzeta dorretxea noiztikakoa den jakitea oso garrantzitsua iruditzen zait, Mutrikurako ez ezik baita Gipuzkoaren historiarako ere, ondorean agertuko dudan arrazoiagatik.

Aritzetan gordetzen den leihopeko harri batean, gotiko letraz irarria dagoenaren arabera, 1470. urtean eraikia zen, eta oroi 1448an, Mondragoko erreketaren ondorean Gaztelako erregeren aginduz Gipuzkoako Hermandadeek 1456an jauntxoan dorretxe guziak bota zituztela, Elgoibarko Olaso eta Eibarko Untzueta ezik. Beraz, agindu hura betetze hartatik hamalau urtera eraiki zen Aritzeta dorretxea eta bertan irakurtzen denetik prebostearen dorena izateko.

Prebosteengan izaten zen portuko kai edo moileetako sartu-irritenen zergaz arduratzea eta kargu hau ere berria dugu Mutrikuko historiarako.

Hara hemen hitzez-hitz bertan irarria:

Esta tor-e i.... Ioan  
m-z prebofte i dna m-a m-s  
fu muj-r el ano MCCCCLXX

Iragarki honen esan nahia: Dorre hau Joan Martinez preboste eta Maria Martines bere emazteak (egina) 1470. urtean.

Laburpenak kontutan izanik, horrela irakurriko nuke. Falta diren letrak, uste dut, "(h)izo don" izango direla.

Lastima izan zen dorre honen erreketeta, zeren osorik iraun balu, asko lagunduko zigun garai hartako dorretxeen arkitektura ikerketarako. Dena dela, Garcia Salazarrek kontzen duena eta Aritzeta

dorreko idazkia kontuan hartzekoak dira.

Baita ere, esan beharrezkoa iruditzen zait, Katalina Plazak Mutriku bertako deitura zuela. Gure mende honetan, 1977. urtea, bozetara erabaki zenaren arabera Mendaroko herri kontzejua sortu zen. Ordura arte, Plaza auzoan Intxusi errekek bereizten zituen Elgoibar eta Mutrikuren arteko mugak. Gaur ordea, Plazaren bi alderdiak bat eginik daude Mendaroren barnean. Hontaz, ikus "Mendarok herri izan nahia" nire *Bidez* (1981) liburuaren 109-113. orrialdeak. Plaza auzoa osatzen zuten etxeak honako hauek ziren, Mutriku partekoak: Errebidokua (Errebiro), Arogei, Larra Janigoa edo Jangua (Eperkua) eta Errementariena (Erremenderikua); Elgoibar partekoak: Artañola, Andikoetxea (Andikotxe) eta Martizenea (Martitzenea).

\* \* \*

Parte honetan, 1981ean, Mutrikuko kanpin batean euskara praktikatzen ari ziren gazte talde baten eskariz adierazi nizkioen oharra agertuko ditut. Hauek gainera Astigarribia auzoko pre-romanikoaren berriak ere eskatu zizkidaten eta hauek nire *Landuz* (Donostia, 1983) liburuaren 89-97 orrialdeetan jasoak datoz.

Hiri bateko historiaren ageri zaharrak aztertzen hasten garenean ohartzen gara oraindik zenbat egiteko dugun, eta herrietako

historiak bilduz osatzen da probintzia edo nazioko historia nagusia ere. Ez deritzat hain gauza zaila herri bakoitzean zenbait pertsona hontaz arduratzeko gertatzea, agirien iturriak erakutsiz eta etnografia bilketa zer bidetatik eraman adieraziz; gainerakoa ekintzak dakarrena da. Gure herrietan futbolla edo jan-edanetan ematen den alperrikako indarrari ordu guti batzuk lapurtzea besterik ez da, buruaren jakingarri, go-goaren kontsolagarri eta gorputzaren osasungarri.

Bibliografia bideak urratuz ageriak biltzea dugu lanik errezenetakoa eta, adibidez, hara hemen mutrikuarrek ere lau iturri desberdinetan aurkitu ditzazken berria emango dut laburki. Berri horietako zenbait, Mutrikurako ez ezik Euskal Herriko itsas merkataritza eta artegintzetarako ere jakingarri direnak.

Jakina da Debakoentzat Urazandi dena, Mutrukuarrentzat Urazemendi dela. Deba ibaiaren ahoan mugatzen dira bi herriok, Lasao deritzan tokitik itsasora artekoa da batzuentzat Urazandi eta besteentzat Urazemendi. Gainera, etxe bat ere bazen duela gutxi arte, dorretxe gisakoa, Urazemendi Mutritukoa denezkero. Gotiko estiloz egina, bere taxuraz XV. mendekoa edo XVI.aren haserakoa, eta zalantzarik gabe moileko sartu-irtenak zaintzeko egi-

na. Ate baten buruan itsasontzia zuen, harlanduan egoki tailatua.

Urazemendi dorretxe honek izango du ikustekorik Debako portuak merkataritzarako garapen handia ezagutzetik, hiri bion artean sortu ziren eztabaida eta haserreekin. Elkarren arteko auzi haiek, azkenean Valladolid-eko Chancilleria hartan erabaki behar izan ziren, eta oso ondo konpondu ere 1568an bien artean "Comunidad del rio Deva" sortuaz. Horrek hobetu zituen elkarren arteko harremanak eta Deba eta Mutrikuko itsasgizonak beharkizunetan elkarlanean ihardutzea erabaki zuten; hortaz, baita Mutrikuko eskribau zen Lazaro Arizabalok ageri bat idatzi ere. Berri hauek Karmelo Etxegaraik jaso zituen *Investigaciones Históricas referentes a Guipúzcoa* (Donostia, 1893) deritzan liburuaren 246-251. orrialdeetan.

Urazemendik, ibaiaren bestaldean du, ez hain urruti, Irarrazabal Debako prebosten etxea.

Vargas Poncek Cean Bermúdezi gutunez goretsitako Breheville deiturako artisteri buruzkorik oso guti dakigu. Joan Breheville izan behar zen lehena, 1559an aipatzen dena. Mutrikun bizi zen eta ospetsua zen elizetako erretaulak pintatzen eta urreztatzen, baina baita ere beiraduragintzan, hau da bidrieragintzan. Bestek beste, Mutrikun bertan lehenagoko parrokiari egin zituen lanez

gainera, badakigu Albiztur, Erretzil eta Bergarako Santa Marina-rako lanak egin zituela. Bere ondorengoa izan zen Nikolas, Donostiako San Bizenten Ambrosio Bengoetxearen erretaula bikaina polikromatu zuena; baita ere Hondarribiko elizan beste horri zorrik ez zion Joanes Iriarterena.

Joanes Iriarteren lanak ganora gabe sakabanatu ziren Hondarribian. Larrea eskultorea ere partaide izan zen bietan, eta zati batzuk orain Hendaiako parrokiari dautu. Nikolasen anaia bat, Lazaro bere izenez, Amasan ibili zen 1613an, hango erretaula pintatzen. Azkenik, Migel, bere ikasle zen Diego Zarateren laguntzaz 1680. urtean Debako erretaula nagusia pintatu zuena. Brehevillearren, mende baten buruan lan asko egin zuten Euskal Herriko elizetarako. Beraien berririk gehien M. A. Arrazolak dakar *El Renacimiento en Guipúzcoa*, (1968) deritzan bigarren tomoan.

Baina ez da hori bakarrik gairi haietako Mutrikuk artegintzaz eskaintzen zuena. J. Ybarrak *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* (Bilbao, 1958) deritzan liburuaren 352. orrialdean jartzen duenez, Joan Domingo Andonaegi mutrikuarrak egin omen zuen Amortoko elizarako erretaula nagusia, 1674an jarri zena. Zer dakigu artista hortaz eta Mutrikun zuen lantegiari buruz? Deusik ere ez. Baina ez ginake batere harrituko

gutien uste denean berri gehiago agertzea. Behar bada Brehevillea-  
rekin harremanak zituen, garai  
berekook zirenez gero.

Azkenez, haintzat hartu beha-  
rrezkoa deritzat Roke Aldabalde-  
treku debarraren *Casas Solariegas  
de Guipúzcoa* (Donostia, 1979) li-  
burua. Mutrikuko bost jauregi eta  
bertako zenbait gizon ospetsuren  
berri zehatzak ematen baititu.  
Hauek dira bost jauregiok: Berria-  
tua, Galdona, Gaztañeta, Monteli-  
vet eta Olazarra.

Etxegarairen *Monumentos civi-  
les de Guipúzcoa* (1921) deritzan-  
nean datoz, 14. orrialdean bere  
eta Vargas Ponceren iritziak  
agertzeaz gainera, Berriatua, Za-  
biel. Olazarra eta Mizkiaren  
argazkiak.

Baina arte aldetik gauza asko  
ditu baliagarriak. Adibidez, Zubi-  
karaik hor aipatzen du xehetasu-  
nez, 75-76. orrialdean, Zurbaran  
Kristo gurutzatua eta 51.ean  
Santa Katalina komentuko aldare  
nagusian dagoen Johan Boschorst  
flamendarraren kuadro handi be-  
zain ederra, bertan jartzen due-  
nez, 1663. urtekoa da. Baina kom-  
mentu hortako alde bateko  
aldarean badira itxuraz Divino  
Moralesenak izan daitezken pin-  
turak ere.

Mutrikuko eliza nagusia  
neoklasiko erakoa da, Silvestre  
Pérezek diseñuz egina, bere berri  
ematen nuen *Landuz* (1983) libu-  
ruaren 123-127. orrialdeetan.

\* \* \*

Azkenik, hara hor Luis Muru-  
garrenek 1997an "Vida religiosa  
en Motrico del siglo XIII al siglo  
XVI", *Bol. de la Real Sociedad Bas-  
congada de los Amigos del Paisen*  
LIII. tomoko 279-353 orrialdeetan  
eskaini digun lana.

Hasieran mitolojia gaien lau-  
soan agertzen direnak dakarzki,  
Jentiletzeko harpean aurkitu ziren  
lehen gizonen aztarnategian oina-  
rriturik. Ondorean Astigarribiako  
ibia eta San Andres eliza Santiago  
bidean jarriz, gero parrokia hori  
1081. urtean San Millán de la Co-  
golla-rako donazioa aipatuz.

Hala ere, Astigarribiako parro-  
kiaz egin diren arkeologiazko  
ikerketarik sakonenak 1969-  
1970. urteetakoak dira, Inazio  
Barandiaran Maesturen zuzenda-  
ritzapean burutuak eta lan horren  
memoria: "Excavaciones en la  
iglesia de San Andrés de Astiga-  
rribia", *Noticiario Arqueológico  
Hispánico* aldizkariaren XV. to-  
moan (Madrid, 1971), 190-217  
orrialdeetan, zazpi irudiz eta sei  
laminaz horniturik argitaratu zen.

Antzinateko Estrabon eta Me-  
laren aipamenak ere egiten ditu  
Luis Murugarrenek, Pomponius  
Melak "várdulos" zeritzaienen  
"Trítion Tubórikon" hura Mutriku  
izango ote zen agertuz. Egia esan,  
ez da lehen aldia iritzi hori ager-  
tzen dena, baina Mutriku ez zen  
barduloen eskualdekoa, karistioe-  
na baizik. Horregatik, P. Melak ai-

patzen zuen hura Errioxako Tricio izan zitekeen. Nik hala ulertzen dut behintzat A. García y Bellidoren *La España del siglo primero de nuestra era. Según P. Mela y C. Plinio* (Madrid, 1947) liburuaren 37-38 eta 140 orrialdeetan. Baina horrek ez du ukatzen Mutrikuk ere erromarren aldi hartan ez zuenik izango inperioaren eraginik, Plaza auzo izena izan daiteke garai haietakoa.

Hala ere, Murugarrenen lan horren edukia kontutan hartzekoa da, zeren berri interesgarri asko eskaintzen baitizkigu. Agirietariko asko Iruñeko Apezpikutegiko artxibategitik aterak dira, baina horrez gainera, bibliografia ere kontutan izan du eta probintziako artxibategietatik zein elizakoetatik eta Simancastik beste asko lortu izan ditu lan hau burutzeko. Horietako agiririk zaharrenak, Trentoko Kontzilio aurretiko erlijio giroa erakusten digute, zelibatua behartu baino lehenagokoak eta horregatik gure gizarteak bizi izan zituen beste era bateko usteen lekuko dira (ikus 285-292. orr.).

Ondoren, A. Zubikaraik eman zituen erreketaren buruzko berrieri zenbait gehigarri eginten dizkio. Gero Berpizkunde garaira sartuz, Trentoko Kontzilioaren gerortiko arau eta jokabideak ematen ditu, bereziki 307-309. orrialdeetan.

Mutrikuar izen batzuren ze-

rrenda dakar 300-302 orrialdeetan, baina beraien ofizioak edo eginkizunak adieraziz. Medikuntzaren historiarako hor eskaintzen dizkigu: herriko mediku, 1566an, Loiola Lizentziatua; zirujano, 1551ean, San Joan Urkiza; botikario, 1549an, Martin Ruiz Bidazabal, bere laguntzaile Ma. Mnz. Iturriza zuela eta 1558an Bidazabalekin batean Sanjoan Arantzamendi; barbero (zirujano ordezeko edo izango zen), 1570ean, Maisu San Joan Askartzeta; eta, haurgintzarako partera, Maria Arriola, 1553ean. Horiez gainera hor dira, besteak beste, 1550ean preboste zen Gamboa deiturako bat, 1550dik 1590era artean alkate izan zirenak, eskribaua, almirantea, harginak, pintoreak, errementariak, sastrea, jostuna, kordelginak, arakinak, galdaragina, upelginak, zapatagina, danborilerokak, merkatariak eta abar.

1557. urtean itsasontziz nondik norako bidaiak egiten zituzten adierazten du 304-305. orrialdeetan, non aipatzen diren Portugal, Malaga, Sevilla, Flandes, Irlanda, Ingalterra, Ternua. Gehienetara merkataritza, baina Ternuara bale eta bakailau arrantzara.

Hamaseigarren mende bukaeretan bi organo zituen Mutrikuko elizak. 1560. urtean Juan Ramos Arriola zen organista, baina ez omen zen ofizio hortako bakarra, Juan Migel Larrangak ere bazekie-

nez eta Kalahorrako Apezpikute-giko zen Andres Iruroge apeza ere hortarako prest omen zen. Oroi Mutriku hiriko parrokia Iruñekoa zela, baina Astigarribia auzokoa Kalahorrakoa.

Juan Brehevilleren artegintza-zko berri ezezagunak datoz 310-312. orrialdeetan. Ondorenean dio, goi mailako ikasketak egin nahi zituztenek Gaztelara, Frantziara edo Italiara irten beharren aurkitzen zirela. Baina arte historiarako ematen dizkigu 1568ko beste zenbait berri, lehengo parrokia nagusikoak ez ezik, Astigarribia eta Azpilgoeta (Mendaro) zein Gurutze Santu eta Magdalena Ospitaleetan ziren aldareak adieraztean, 313-321. orrialdeetan. Non aurkitzen diren zenbait artista erretaulagintzan arituak eta horiek erabili zituzten gaiak eta kostuak. Lorenzo Breheville beiraduragin (bidrieragin) bezala agertzen zaigu bertan eta Juan Breheville pintorez gainera erretaulak urreztatzen.

Aipatzen diren bi Ospitale horietan, Gurutze Santu eta Magdalena, hiriko txiroak, eskale eta peregrinoak hartzen omen ziren. Hara zer esaten den 1587. urtean bi kofradien ospitaleak bisitatzeari: "Es donde se acogen generalmente todos los pobres mendigos e peregrinos, que acuden a esta villa" (347. or.).

Zilarginen artean Pedro Mari-gorta gasteiztarra aipatzen du,

nork hartu zuen 1576an erloju konponketa eta zaintzeko ardura. Jakobe Goizueta Debako biztanleak 1577ean zilarrezko gurutza egin zuen.

Oñatiko Unibertsitatea erai-  
kitze zuzendaritzan ibili zen Pie-  
rres Picart eskultoreak apostola-  
dutzarentzat moldura berezia  
egin zuela. Eta Oa jaunak, Alonso  
Cano-ren obra bat igorri omen  
zuen Sevillan eresia, bere jauregi-  
rako (ikus 339. or.); baina ez du  
aipatzen jauregi horren izenik.

Ermiten berri ematen du 322-  
330. orrialdeetan. Nola ez ba, L.  
Murugarrenek hain berea duen  
gaia denez. Aspaldikoa dugu be-  
rak argitaratu zuen lan bikain  
hura: "Relación de puntos religio-  
sos de Guipúzcoa", *Bol. de la Real  
Sociedad Vascongada de los Ami-  
gos del País*, XXVIII, 1972. Baina  
oraingo honetan, hamaseigarren  
mende azkenaldeko inbentarioa  
eta bakoitzeko ondasunen edukia  
jasotzen dituen gero, xehetasun  
gehiagoz dakartza Mutrikuko  
hauek.

Hortik dakigu gaur egun Kal-  
bario deitzen zaiona bere jatorriz  
Maiako Santo Kristo zela 1574.  
Urtero, irailaren 14an, ospatzen  
zirela bertako jaiak eta itsasontzi  
guzietakoek eskaintzen diotela  
meza, hain berena zitzaien "Kris-  
to Maixako"ri. Aldiz, Sant'Agata  
omen zen ermitarik herrikoiena,  
"doncellas en cabello" zeritzaie-  
nentzat. San Pedro ermita zen



itsasgizonen gogozkoa. Hiritik hurbil, Ifar-mendebaldera, itsaslabarren gainekaldean oraindik han nabari dira Santa Elenaren horma hondakinak.

Aritzetako Santa Katalina komentuarien berri batzuk gehitzen ditu, lehendik ezagutzen genuenaz gainera. 1572ko agirien testuan Areicieta jartzen du. Juan Otxoa Berriatua eta bere emazte Katalina Plaza sortzaileen oinordeko ziren Idiakeztarrak 1638an erabaki omen zuten monastegia Areizeta torretxetik hirira eramatea eta monjak Berriatua Dorretxera aldatu.

Irakaskintzan hizkuntzaren erabilera gurasoek gaztelera hautatzearen arrazoiak agertzen ditu

350. orrialdean. Aldiz, printzeak euskaraz zerbait ikasteko gogoan, bere irakasle zen Juan Isasi Idiakez eibartarrak 1635an Pro-bintziako Batzarrean agertua zue-na ere aipatzen du.

1569, 1570, 1576, 1580, 1585, 1589 eta 1594ko pastoral bisitak agertzen ditu. Eta ezaugarriak dira une bakoitzeko gorabeherak jakiteko.

Hara hor, Gorosabelek tamalez zioen Mutrikuko 1543ko erreketaren haren agiri zaharrak galeraziarren, aurretiko beste idazle eta ikertzaileei ezer ukatu gabe, eskertu beharrezkoa zaigun Luis Murugarrenek han-hemenka artxibategiak ikertuz lortu ahal izan dituen agiri jakingarriok.

*Juan San Martin*